## 5. FAMILIAK BETI HEZTEN DU

Familia, gure gizartean, lehen eta funtsezko heziketa-espazioa da, alderdi afektibo eta sozialetan bereziki. Nahitaez, jakinaren gainean egonda edo egon gabe, gauzak egiten ditugunean edo egiten ez ditugunean, familian hezi egiten dugu, baloreak, balore-hierarkiak, jarrerak, jarduteko ereduak, harreman-ereduak eta abar transmititzen ditugu.

Gure familia-ereduak imitatuz eta eredu horiei aurre eginez egiten gara pertsona. Familiek beti hezten dute. Hobe jakinaren gainean egonda egiten badugu, geure buruari nola eta zertarako galdetuz.

"NAHIKOA DUTE ESKOLAREKIN"

Familiaz gain badira beste heziketa-erakunde edo heziketa-esparru batzuk ere (eskola, gizartea, esparru mediatikoa...). Baina familia ezin da bere heziketa-funtziotik urrundu.

Familiak heziketan duen protagonismoa eta erantzunkizuna transferiezina eta ordezkaezina da; gainerakoak, eskola barne, bere zerbitzurako tresnak dira.





Etxeko bizikidetza egonkorreko giza talde anitzei deitzen diegu **FAMILIA**, partaideak edozein izanik ere.

Llamamos **FAMILIA**, independientemente de sus integrantes, a los variados grupos humanos de convivencia doméstica estable.









Batez ere **imitazio** edo **kutsatze** bidez hezten dugu, hots, esaten dugunarekin eta isilpean gordetzen dugunarekin eta, bereziki, egiten dugunarekin eta egiten ez dugunarekin.

Educamos sobre todo por **imitación**, por **contagio**, tanto con lo que decimos o callamos como, sobre todo, con lo que hacemos o dejamos de hacer.





## 5. LA FAMILIA EDUCA SIEMPRE

La familia es, en nuestra sociedad, el espacio educativo primario y primordial, especialmente en los aspectos afectivos y sociales.

Queramos o no, conscientemente o no, por hacer o por dejar de hacer, en las familias educamos, transmitimos valores, jerarquías de valores, actitudes, modelos de actuación y relación, etc. siempre. Educamos sobre todo por imitación, por contagio, tanto con lo que decimos o callamos como, sobre todo, con lo que hacemos o dejamos de hacer, por cómo vivimos.

Nos hacemos personas imitando y contrarrestando nuestros modelos familiares. Las familias educan siempre, por acción o por omisión, activa o pasivamente. Mejor hacerlo conscientemente, preguntándonos cómo y para qué.

"YA VAN A LA ESCUELA"

Además de la familia hay otras instituciones o ámbitos educativos importantes: la escuela, la sociedad, los medios de comunicación... Pero la familia no puede inhibirse de su función educativa.

El protagonismo y la responsabilidad educadora de la familia es intransferible e insustituible. Todo lo demás, incluida la escuela, son y deben ser instrumentos a su servicio.

ISBN: 10:84-89630-01-1
13:978-84-89630-01-7

tratu txarrak maltrato NAHIKO! kidetasunez bizi vivir entre iguales

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna — Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

# HITZARMENA
# COMPROMISO

SESIÓN FAMILIAR **3** FAMILIEKIN SAIOA

## FAMILIEKIN SAIOA (1/1) SESIÓN CON LAS FAMILIAS

### GARAI HISTORIKO BATEAN BIZI GARA

Gure gizartearen historian, oso gutxitan gertatu dira gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna bilatzen dutenak bezain aldaketa handiak.

Aldaketa hauek pertsona guztien eguneroko bizitzan dute eragina. Gure eguneroko bizimodua jarduera eta harreman-esparrua guztietan aldatzen ari da. Geure burua pertsona gisa ulertzeko modua ere aldatzen ari dela esan daiteke.

Gure familiak bortizkeriarik gabeko aldaketa historiko itzel honetan parte hartzeko egokitu behar ditugu.

### VIVIMOS UN MOMENTO HISTÓRICO

Pocas veces en la historia de nuestra sociedad se han dado cambios históricos tan grandes como los que buscan la igualdad real de mujeres y hombres. Es un mundo nuevo.

Estos cambios están afectando ya a la vida cotidiana de todas las personas. Está cambiando nuestra forma de vida diaria en todos nuestros ámbitos de actuación y relación. Está cambiando hasta la forma de entendernos cada cual como persona.

Tenemos que adaptar nuestras familias para participar en este enorme cambio y progreso histórico.



### EGOKITZEKO BEHARRA

Legeak, lan-baldintzak, pertsonen arteko harremanak, baloreak, kontzeptuak eta abar egokitu eta aldatu egiten ari dira mundu osoan emakume eta gizonen arteko justiziaren alde, emakume eta gizonen bizitza hobe baten alde.

Egokitzapen bat, berreziketa bat behar dugu heziketa-esparru guztietan: familian, eskolan, gizartean, esparru mediatikoan...

Gure familia-heziketa, gure eredu pertsonalak eta familiakoak egokitu eta berritu behar ditugu.

### NECESIDAD DE ADAPTARSE

En todo el mundo se están adaptando y modificando las leyes, las condiciones laborales, las relaciones interpersonales, los valores, los conceptos, las palabras, las costumbres... para una mayor justicia entre mujeres y hombres, para una mejor vida de mujeres y hombres.

Necesitamos una adaptación, una reeducación en todos los ámbitos educativos y de socialización: familia, escuela, sociedad, medios...

Tenemos que renovar y adaptar nuestra educación familiar, nuestros modelos personales y familiares.

## 4. FAMILIA HEZIKETA: ALDAKETA ETA ALTERNATIBAK

Eredu tradizionala aldatzen ari da familia askotan, **dagoeneko ez baitu balio**. Ez die egungo familien izaerari eta bizimoduari erantzuten. Ez du pertsonaren eta giza eskubideen egungo kontzeptu unibertsala jasotzen. Ez die pertsonen arteko eta laneko egungo harremanei erantzuten. Ez du parte-hartzea sustatzen duen egungo gizarterako eta hiritar-multzo demokratikorako hezten. **Are eskasago da etorkizuneko familientzat, gure seme-alaben familientzat.**

**GARAPEN INTEGRALA**

**BIZITZARAKO, BIZITZA OSORAKO, BIZITZAREN ARLO GUZTIETARAKO**

**Gaur egungo familiek** argi ikusten dute beren alabek, zoriontsu izateko, ikasi eta prestatu beharra dutela, etorkizunean ekonomikoki inoren menpe egon ez daitezen eta beren garapen profesionala izan dezaten. Alabak alderdi guztietan garatutako pertsona autonomoak izan daitezen nahi dute.

**Gaur egungo familiek** argi ikusten dute beren semeek, zoriontsu izateko, lanetik bereizitako bizitza bat eta lanari lotutakoez bestelako helburuak behar dituztela. Semeek sentimenduak, beharrak eta nahiak azaltzen eta komunikatzen ikas dezaten nahi dute. Semeak alderdi guztietan garatutako pertsona autonomoak izan daitezen nahi dute.

**Gure seme-alaben heziketa eta garapen integral eta berdintasunezkoak** eredu tradizionalak saihestea dakar. Kide guztiei beren bizi-proiektua berdintasunean eta autonomia osoz garatzea ahalbideratuko dien familia-bizikidetza bat praktikan jartzea dakar, bizikidetza horretan demokratikoki parte hartuz eta arduratuz.

**Familia-bizikidetzan demokratikoki parte hartzea eta arduratzea**. Hau da, ondokoez arduratzea:
- Etxeko eguneroko lanak eta eginkizunak..
- Familiako gaineko kideen behar materialak eta afektiboak.
- Bizikidetza horrek dakartzan gizarte- eta ordezkaritza-zereginak.

**Familiak osatu nahi baditugu** eta gure seme-alabak beren familiak osatzeko hezi nahi baditugu, horrela egin behar dugu:
- Beren afektuetan oinarrituta, berdintasunean, menpekotasunik eta hierarkiarik gabe konprometituz.
- Autonomia eta garapen pertsonaletik, desberdintasun eta proiektu pertsonalen errespetutik abiatuta.
- Elkar onartu, errespetatu eta laguntzeko, familiak sustatutako eta familiarekin batera burututako garapen pertsonala lortzeko bizikidetasun-proiektu amankomun batekin.

Eredu tradizionalen **ALTERNATIBAK,** gure familiak seme-alaben garapenaren alderdi eta une batzuetan berrikusi eta egokitzea eskatzen du:
◆Jokoak, jostailuak, haurrentzako ipuinak... Behin batean... bazen behin...
◆Ereduak, portaerak, etxeko erantzunkizunak... Etxean ikusten dena.
◆Eskolaz kanpoko jarduerak... Jende artean hazi.
◆Hautaketa akademiko profesionala... Zergatik ez?
◆Irteteko, harremanetarako, bidaiatzeko garaia... Beldurrik gabe.



Bizitza ibilbide edo proiektu pertsonalaren lau arlo edo zutabeetan (ni-neu, familia, lana, gizartea), **bizitza proiektu garatu eta orekatu bat daukagun neurrian**, autonomia, ongizate eta norberaren errealizazio maila altuagoaz gozatu ahal izango dugu eta aukera gehiago izango ditugu bikote eta famili harreman pozgarriagoak eraikitzeko, menpekotasunik eta gehiegikeriarik gabekoak, berdintasunetik, begirunetik eta maitasunetik.

Horretarako, **"bizitzaren loteriak"** lau arlo hauetan eskaintzen digunetik abiatu beharko dugu, sakonduz edo baztertuz, bilatuz eta aukeratuz, beste gauzak lortuz. Tokatzen zaigunarekin eta gure ahaleginez lortzen goazenarekin, pertsona bakoitza bere **bizitzako proiektu pertsonala** eraikitzen doa.

En la medida que tengamos un proyecto de vida desarrollado y equilibrado en las cuatro grandes áreas o pilares de todo proyecto y trayectoria vital personal (yo, familia, trabajo y sociedad), mayor autonomía, bienestar y realización personal gozaremos, y más posibilidades tendremos de establecer relaciones de pareja y familiares satisfactorias, sin subordinaciones ni abusos, desde la igualdad, el respeto y el amor.

Para ello deberemos partir de lo que la **"lotería de la vida"** nos depara en estos cuatro ámbitos, cultivándolo o dejándolo de lado, buscando y eligiendo, consiguiendo otras cosas. Con lo que nos toca y todo lo que vamos logrando con nuestro esfuerzo, cada persona va haciendo su **proyecto personal de vida.**

## 4. MODELO EDUCATIVO FAMILIAR: CAMBIOS Y ALTERNATIVAS

El modelo tradicional está cambiando en gran número de familias porque **ya no sirve**. No responde a cómo son y viven las familias actuales. No recoge el concepto universal actual de persona y derechos humanos. No responde a las relaciones interpersonales y laborales actuales. No educa para la sociedad participativa y la ciudadanía democrática actuales. **Y todavía sirve menos para las familias del futuro, para las familias de nuestras hijas e hijos.**

**DESARROLLO INTEGRAL**

**PARA LA VIDA, PARA TODA LA VIDA, PARA TODOS LOS ÁMBITOS DE LA VIDA**

**Las familias de hoy** en día tienen muy claro que sus hijas, para ser felices, deben estudiar, prepararse y cualificarse para que en el futuro no dependan económicamente de nadie y tengan su propio desarrollo y carrera profesional. Quieren que sean personas autónomas desarrolladas en todas sus facetas.

**Las familias de hoy** en día tienen muy claro que sus hijos, para ser felices, deben tener más vida que el trabajo y más objetivos que los laborales. Quieren que aprendan a mostrar y a comunicar sus sentimientos, sus necesidades y anhelos. Quieren que sean personas autónomas desarrolladas en todas sus facetas.

**La educación y el desarrollo integral e igualitario** de nuestras hijas e hijos supone evitar los modelos tradicionales. Implica practicar una convivencia familiar que permita a todos y cada uno de sus miembros, igualitariamente, desarrollar -con total autonomía- su propio proyecto vital, participando y responsabilizándose democráticamente de dicha convivencia.

**Participar y responsabilizarse democráticamente de la convivencia familiar**. Es decir, responsabilizarse de:
- Los trabajos y las labores domésticas cotidianas.
- Las necesidades materiales y afectivas de los demás componentes familiares.
- Los quehaceres sociales y representativos derivados de dicha convivencia.

**A la hora de formar familias** y educar a nuestras hijas e hijos para que formen sus parejas y familias, debemos hacerlo:
- En base al respeto y al afecto, de igual a igual, sin dependencias ni jerarquías.
- Desde la autonomía y el desarrollo personal, desde el respeto a las diferencias y a los proyectos personales.
- Con un proyecto común de convivencia para la aceptación, el respeto y el apoyo mutuo, para el desarrollo personal potenciado por y compartido con su familia.

**LA ALTERNATIVA** a los modelos tradicionales exige que revisemos y adaptemos nuestras familias en diferentes aspectos y momentos del desarrollo de nuestras hijas e hijos:
◆Juegos, juguetes, cuentos y vídeos infantiles, televisión... Érase una vez...
◆Modelos, comportamientos, responsabilidades domésticas... Lo que ven hacer en casa.
◆Actividades extraescolares complementarias... La oportunidad de crecer en público.
◆Elecciones académico-profesionales... ¿Por qué no opciones novedosas?
◆La hora de salir, alternar, viajar... Sin miedo.

## ¿NOLAKOAK DIRA FAMILIAKIDE BAKOITZAREN ARDURA ETA EGINBEHARRAK? ¿CÓMO SON LAS RESPONSABILIDADES, TAREAS Y TIEMPOS DE CADA PERSONA EN LA FAMILIA?

| DENBORA<br>TIEMPO | AMA<br>MADRE | AITA<br>PADRE | ALABA<br>HIJA | SEMEA<br>HIJO | BESTE NORBAIT<br>OTRA PERSONA |
|---|---|---|---|---|---|
| Ordaindutakoak<br>Remuneradas | | | | | |
| Dohazkoak<br>Gratuitas, no remuneradas | | | | | |
| Publikoak, begi bistakoak<br>Públicas, se ven fácilmente | | | | | |
| Pribatuak, ez dira ikusten<br>Privadas, no se ven | | | | | |

| DENBORA<br>TIEMPO | AMA<br>MADRE | AITA<br>PADRE | ALABA<br>HIJA | SEMEA<br>HIJO | BESTE NORBAIT<br>OTRA PERSONA |
|---|---|---|---|---|---|
| Egunerokoak, maiztasun handikoak<br>Diarias, de alta frecuencia | | | | | |
| Noizbehinkakoak<br>Puntuales, poco frecuentes | | | | | |
| Garrantzizkoak<br>Importantes | | | | | |
| Gizartean baloratuak<br>Valoradas socialmente | | | | | |

| DENBORA<br>TIEMPO | AMA<br>MADRE | AITA<br>PADRE | ALABA<br>HIJA | SEMEA<br>HIJO | BESTE NORBAIT<br>OTRA PERSONA |
|---|---|---|---|---|---|
| Norberarentzat<br>Para una o uno mismo | | | | | |
| Besteentzat<br>Para las demás personas | | | | | |
| Aisialdia, denbora librea, zaletasunak<br>Ocio, tiempo libre, aficiones | | | | | |
| Lagunekin egoteko, harremanak izateko<br>Vida social, estar con amistades | | | | | |